

ematen ta zabaldu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARTE
EDERREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE BELLAS
ARTES

PINTURA MASTERRA

www.ehu.eus

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Pintura masterreko ikasleei eskainiko zaizkie produkzio artistikoaren arloan hasteko behar diren ezagutzak. Horretarako, lantegiko lanetik hasita, artelanak erakutsi eta hedatu arteko prozesu osoa landuko da. Gainera, masterrak ikerketa karrera hasi nahi duten ikasleak prestatzen ditu.

Irakasleen lana ikasle bakoitzaren pintura-lanen garapena bultzatzea da. Horretarako, irizpide eta planteamendu profesionalak erabiliko dituzte. Gainera, gaur egungo ingurune kulturalen eta sozialean erakusketak eta artelanak egiteko dauden baldintzak eta egoerak ahalik eta modu egiazkoenean azalduko dira arlo akademikotik.

Programan pintore artistiko jarduteko informazioa eta prestakuntza ematen zaie ikasleei. Hortaz, honako hauek dira masterraren helburu nagusiak: ikasle bakoitzak proposamen piktorkoia garatzeko gaitasunak eskuratzea eta maila profesionala izatea; pintura-jarduera profesionalean norberaren artelanak egiteko behar diren oinarri teorikoak eta praktikoak ematea

(besteak beste, merkatuarekiko loturak, erakusketak, katalogatzea, hedapena eta artelanak argazkien bidez erregistratzea); sormen-lana prestatzeko eta erakusteko prestakuntza ematea, galeria publikoetan zein pribatuetan parte hartuz.

Prestakuntza honela antolatzen da: ikasleek lan praktikoak egiten dituzte lantegietan; eta irakasleek zein ikasleek prozesuen eta emaitzen jarraipena egiten dute. Nahitaezkoa da arte-erakusketekin lotura duten erakundeetan eta enpresetan kanpoko praktikak egitea.

Adierazi dugun bezala, doktorego tesi bat egitera bideratutako ikerketan ibilbide bat hasteko gaitasuna ematen dion prestakuntza jasotzen dute ikasleek.

Azkenik, master amaierako lana ikasleek egindako obrak erakustea izango da, haien lanei buruzko katalogo edo txosten dokumentatu batek osatuta, eta unibertsitate ingurunean master amaierako lan bat egiterakoan kontuan hartu beharreko alderdiak kontuan hartuta.

SARBIDEA

Honako graduak edo lizentziak: Arte, Arte Ederrak, Ikus-entzunezko Komunikazioa, Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberritzea eta Sorkuntza eta Diseinua.

IRTEERA PROFESIONALAK

Pintore libre aritzea; areto publikoko pintura-jarduerak. Irakaskuntza lantegietan, akademietan, kultura-geletan edo ikasketa partikularretan. Irakaskuntza-masterra eskatzen ez duten ikasketa arautuko irakasleak izatea.

OINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskolak emateko lekua:

Arte Ederren Fakultatea (Leioa).

Irakaskuntza mota:

Eskolan bertakoa.

Hizkuntza:

Gaztelania, euskara eta ingelesa.

Gutxi gorabeherako prezioa: 1.750-1.950 euro.

Egutegia:

Irailetik maiatzera, goizez eta arratsaldez.

IRAKASTORDUAK / IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1

Nahitaezko Gaiak	Hautazko Gaiak	Proiektuak / Ikerketa-lanak	Praktikak	Guztira
9 ECTS kreditu	33 ECTS kreditu	12 ECTS kreditu	6 ECTS kreditu	60 ECTS kreditu

PRESTAKUNTZA PROGRAMA

Nahitaezkoak:

- Pinturako masterraren hasiera eta laneko planteamendua (3 ECTS).
- Pinturako master profesionalaren metodologia (3 ECTS).
- Arte produkzioa erakustea (3 ECTS).

Hautazkoak:

- Praktika eta ekintza XXI. mendeko pinturan (6 ECTS).
- Paisaiaren pintura eta espresibitatea (5 ECTS).
- Formatu handiko pintura (5 ECTS).
- Pinturaren errepresentaziorako teknikak (5 ECTS).
- Aurrera eta atzera. Norberarenganako jarrera analitikoa Pintura jardutean (5 ECTS).
- Pintura eta grafikoak (4 ECTS).
- Aurpegia zentzua sortzeko elementu gisa (5 ECTS).
- Pintura jardueraren prozedurak, teknikak eta prozesuak (6 ECTS).
- Pintura, ikus-entzunezko baliabideak eta beste adierazpide batzuk (3 ECTS).
- Pintura jarduerari bideratutako artearen kritika, estetika eta teoria (6 ECTS).

HARREMANETARAKO

Arduraduna: Iñaki Imaz Urrutikoetxea

Tel: 94 601 2973

Posta-elektronikoa:

inaki.imaz@ehu.eus

Idazkaritza: Patricia Rodríguez Gómez

Tel: 94 601 5477

Posta-elektronikoa:

patricia.rodriquezg@ehu.eus

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK / BABESLEAK

- Ayuntamiento de Arrigorriaga.
- Ayuntamiento de Barakaldo.
- Ayuntamiento de Basauri.
- Ayuntamiento de Leioa.
- Civivox Pamplona.
- Donostia Kultura.
- Fondo de Formación Euskadi.
- Gernika Kultur Etxea.
- Juntas Generales de Bizkaia.
- Mendibile Jauregia.
- Museo de Arte Sacro de Bilbao.
- Vitoria-Gasteiz. Fundación Caja Vital Kutxa.



www.ehu.eus/eu/web/master/pintura-masterra